

# Balorezko proposamena

Gure enpresak ingurumenari lagundu nahi dio zigarro-puntak bilduz. Bildu ondoren, zigarro-puntak birziklatu egingo dira eta birziklapen prozesu horren ostean, soinu-xurgatzaileak ekoiztuko dira.



Gure helburua da, alde batetik zigarro-puntak birziklatzea eta beste aldetik aurkezpenean azaldu dugun moduan, lurzoruan eta itsasoetan edota erreketan ematen den kutsadura saihestea. Modu horretan, aldaketa klimatikoa geldiarazteko nolabaiteko pausu bat emango genuke gure jardueraren bitartez.



Beraz, ekoiztuko ditugun plaken xurgaketa gaitasuna baita **kalitatea** ere merkatuko hoberenatarikoa izango da, eta bestalde, gaur egun pil-pilean dagoen gaiaz baliatuz, bezeroari **ingurumenaren kutsadura murrizten** duen jarduera eta produktu bat eskainiko genioke. Laburbilduz, jakinaren gainean gaude gaur egun bezero asko ingurumenaren inguruan oso arduratuta daudela eta prest egongo ziren horrelako produktu bat erosteko.

